

ZIBERSTEILAS HAURRESKOLAK 1

STEE-EILAS-en informazio elektronikoa

30 uste

Irailak 4

BUELTAN GAUDE BERRIRO

Kaixo guztioi, berriro hementxe gaude. Aurten, ia-ia, ez dugu denborarik izango lanera egokitzeko, oposaketak hementxe bertan daudelako.

Espero dugu, oportetatik bueltan indarberrituta etortzea.

Aurten, lau pertsona egongo gara liberatuta zure zalantza edota kexa guztiak entzuteko. Gogoratzen dizuegu sindikatura lasai deitu dezakezuela, inongo konpromisorik gabe. Hementxe gure lan ordutegiak:

GOIZEZ : Astelehenetik ostiralera: 9etatik 14:30etara

ARRATSALDEZ (16:00etatik – 19:00ak arte):

Astelehena → Araban **Iñaki**

Asteartea → Gipuzkoan **Kizkitza**

Asteazkena → Bizkaian **Naiara**

Osteguna → Bizkaian **Ceci**

ESLEIPENA: Pasa den asteazkenean, 27an, Eibarren, esleipenak izan ziren. 157 lanpostu banatu ziren. Hauetatik, 1.txandan 112, eta 2.txandan 47+1 (ez-barematutako zerrendatik).

GARATU: Aurten ere, Haur Hezkuntzarako zuzenduta dauden ikastaroak egiteko aukera dugu. Beraz, norbaitek izena eman nahi badu edota informazio gehiago nahi izanez saileko web orrian (www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net) sartu. Baina gogoratu bihar irailak 5 azken eguna dela izena emateko. Irailaren 19an behin-behineko zerrendak aterako dira eta 19tik 29ra erreklamazioak egiteko epea; azkenik, urriaren 9an behin-betiko zerrendak argitaratuko dira.

LAN HITZARMENA: Iaz sinatu genuen, beraz, ikasturte honetan aldaketa batzuk egongo dira. Adibidez: aurten, koordinatzaileek denbora gehiago izango dute eta zerbait kobratuko dute koordinatzaileen lana egiteagatik, zuen seme-alabekin medikuarenera joateko baimena duzue baina gogoratu orduak errekuperatu beharko dituzuela eta hainbat gauza gehiago. Berehala inprimatuko dugu lan hitzarmen berria eta dugunean helaraziko dizuegu. Bitartean, begirada bat eman nahi izanez gero, EHAA n argitaratu zen abuztuaren 13an.

LEPa: Aurten, badakigu derrigorrezko gaia dugula. Dakizuenez, Partzuergok abuztuaren 1ean galderak atera zituen (norbaitek ez badaki non dauden, Haurreskoletako web orrian daude, Opeko atalean). Aditu batzuekin hitz egiten ari gara ikastaro batzuk prestatu ahal izateko. Dena den, zerbait gehiago jakin bezain pronto esango dizuegu.

HURRENGO ARTE!!!!

ARABA: Fuente de los Patos 2-3.C	01001 Gasteiz	☎ 945 14 11 04	☎ 945 14 43 02	araba@stee-eilas.org
BIZKAIA: Nikolas Alkorta 3 (Zabalburu)	48003 Bilbo	☎ 944 10 02 98	☎ 944 10 13 60	bizkaia@stee-eilas.org
GIPUZKOA: Baso-txiki 30-34 (atzealdea)	20015 Donostia	☎ 943 46 60 00	☎ 943 45 36 27	gipuzkoa@stee-eilas.org
NAFARROA: Descalzos 72 (lonja)	31001 Iruñea	☎ 948 21 23 55	☎ 948 27 00 48	nafarroa@stee-eilas.org